GAKO EKONOMIKOAK

- Banku zentral gehienek tasa ofizialak igotzen jarraitzen dute, baina erritmo motelagoan.
- Burtsen erorketa diru-agintarien oldarkortasuna makroen datuen argitalpenaren araberakoa izango da.
- Errenta finkoan galerak, zorraren tasen igoeraren ondorioz.
- Euroa suspertzen jarraitzen du dolarrarekiko. Petrolioaren prezioak berriz egin du behera, ekonomiarekiko kezkaren aurrean.

MAKROEKONOMIA ETA MERKATUAK

Urteko azken hilabete hau diru-erakunde nagusien jarduerek eta Txinan koronabirusaren bilakaerak markatu dute. Oraindik zalantza asko daude Banku Zentralen diru-politikaren balizko lasaitasunari buruz. Fedaren eta BCEren bileren ostean, inbertitzaileek urriaz geroztik nagusi zen baikortasuna zuzendu zuten, entitateek aldatuko zutelako itxaropenak eraginda, eta tasen igoeren bukaera aurreratzeko diru entitateen itzulinguruekin gelditu zen. Aurreikusitako gidoiari jarriki, Fedak oinarrizko 50 puntura jaitsi zuen igoera erritmoa, BCEk eta Ingalaterrako Bankuak bezala. Bestetik, Japoniako Bankuak ezustekoa eman zuen merkatuetan japoniar hamar urterako kotizazio bonuarentzat onartutako gora-behera tartea areagotzean, unera arte diru politikaren jarrera oraindik aldatu ez zuen bakarra baitzen hau. Baina arreta etorkizunari begira eman zitzaketen pistetan zegoen. Europako eta Ipar Amerikako entitateek argi utzi zuten oraindik ere tasen igoera bat baino gehiago behar direla inflazioari aurre egiteko eta Ingalaterrako Bankuaren baitan irekitako zatiketak are gehiago areagotu zuen hurrengo bileretan etorkizunaren inguruko kezka. Halaber, makro ingurunetik, Fedaren esparruko aurreikuspen berriek hazkundearen beheranzko berrikuspenak utzi zuten agerian, eta inflazioaren tasen igoera, langabezia tasaren igoerarekin batera. Europako diru erakundeak ere beheranzko joerarekin berrikusi zuen hazkundea eta prezioen igoera, aldiz, gorantz. Denbora gehiagoz izandako tasa altuagoen beldurrak eta hazkunde ekonomikoaren inguruko arrisku gehigarriak inbertitzaileen asmoetan eragina izan zuen, atzerakada handiagoaren beldur zirelako. Halere, ezagututako datuak mistoak izan ziren. Europan, Alemaniako industria ekoizpenaren datuak balioetsitako balioak hobetu zituen, kontsumitzailearen konfiantza hobetzen jarraitu zuen eta hirugarren hiruhilekoaren BPG apur bat gorantz berrikusi zen. Aldiz, Zew alemanak negatiboan jarraitu zuen, nahiz eta uste baino gehiago hobetu, eta PMIen balioespenak uzkurtzen jarraitu dute. AEBtan, KPIren datuak, hazkundearenak eta kontsumitzailearen konfiantzarenak uste baino hobeak izan ziren; txikizkako salmentak, aldiz, jaitsi egin ziren, eta PMIk okerrera gora egin duten, eta KPI bezalako makro datuak argitaratu diren, eta hura erlaxatzeak pandemiak eragindako eskaeraren ahulezia agerian uzten duten, edo bi urte eta erdian inportazioen eta esportazioen datu okerragoak izan diren, inbertitzaileek lehentasuna eman zioten berrirekitze handiagoko azalpenei. Pekingo Gobernuak malgutasun neurriak hartu zituen "zero Covid" politika arintzeko eta balantze orekatuagoa lortzen saiatzeko pandemiaren kontrolaren eta bere ekonomiaren hobetzearen artean. Baina, badirudi makro sustapen honek itxaron beharko duela, positiboen olatu handi batek ospitaleak saturatu baititu eta horrek kolokan jartzen du hazkuntza berreskuratzeko itxaropena. Ondorioz, hornikuntza katea ere arriskuan dago eta mundu mailan ekonomian aurreikusitako desazelerazioaren tamainaren inguruan kezka areagotu da.

ERRENTA ALDAKORRA

Burtsek gorriz itxi zuten hila Atlantikoaren bi aldeetan. Amerikako indize nagusien artean, S&P-500 eta Dow Jones indizeak % 5,90 eta % 4,17 erori ziren, hurrenez hurren. Nasdaq indizeak kalte handiagoa izan zuen tasen igoeren jarraitasunarengatik eta % 9,06 utzi zuen. Europan, galerak txikiagoak ziren, eta Eurostoxx indizea % 4,32 jaitsi zen. Ibex indizeak, bankuen jarrera onean oinarrituta, % 1,60 galdu zuen hil bukaeran. Munduaren gainerako tokietan, Japoniak % 6,70 galdu zuen eta, emergenteak, aldiz, oro har, % 1,64 jaitsi ziren.

INDIZEA	ESKUALDEA	ORAINGO MAILA	DIBISA	HILEKO ALDAK.	2022ko ALDAK.
IBEX-35	ESPAINIA	8.229,10	EUR	%-1,60	%-5,56
EUROSTOXX-50	EUROPA	3.793,62	EUR	%-4,32	%-11,74
S&P-500	AEB	3.839,50	USD	%-5,90	%-19,44
DOW JONES	AEB	33.147,25	USD	%-4,17	%-8,78
NASDAQ 100	AEB	10.939,76	USD	%-9,06	%-32,97
NIKKEI-225	JAPONIA	26.094,50	JPY	%-6,70	%-9,37
EMERG. MSCI	EMERGENTEAK	956,38	USD	%-1,64	%-22,37
MUNDUKO MSCI	GLOBALA	2.602,69	EUR	%-4,34	%-19,46

Iturria: Bloomberg

ERRENTA FINKOA

Zor publikoko bonuek galerak izan zituzten mundu mailan. 10 urterako alemaniar tasak oinarrizko 64 puntu egin zuen gora eta amerikarrak oinarrizko 27 puntu. Periferiako herrialdeek aldeak handiagotu zituen Alemaniarekiko; 10 urterako Espainiako bonua oinarrizko 8 puntura eta italiarra oinarrizko 20 puntura. Errenta finko pribatuari dagokionez, aldiz, kreditu kalitate onenekoak oinarrizko 1 puntu hobetu bazuen ere, txarrenekoak 15 galdu zituen.

INDIZEA	EPEA	ORAINGO MAILA	HILEKO ALDAK.	2022ko ALDAK.
EURIBOR	3 HIL.	2,13	0,16	2,70
	6 HIL.	2,69	0,28	3,24
	12 HIL.	3,29	0,46	3,79
ALEMANIAKO ZOR PUBLIKOA	2 URTE	2,76	0,64	3,38
	5 URTE	2,58	0,64	3,03
	10 URTE	2,57	0,64	2,75
ESPAINIAKO ZOR PUBLIKOA	2 URTE	2,93	0,55	3,54
	5 URTE	3,16	0,65	3,32
	10 URTE	3,66	0,72	3,10

Iturria: Bloomberg

DIBISAK ETA LEHENGAIAK

Dolarrak balioa galdu zuen berriz gainerako monetekiko, nahiz eta FEDaren tasen igoeraren erritmo txikiagoaren ondorioz. Haren aldean, euroak % 2,87 berreskuratu zuen eta 1,0705€/$ balioan itxi du. Librak, aldiz, jarrera ona izan du europar blokearen monetarekiko. Lehengaiei dagokienez, petrolioak % 1,84 egin zuen beherantz, eta urreak % 3,14.

Euro/Dolar

Iturria: Bloomberg

Dokumentu honen helburua informatzea da, ez da eskaintza komertziala, ezta finantza aktiboen salerosketa egiteko eskaera bat.

KUDEAKETA DELEGATUA

kutxabank

DIFN-F81146